| 2020KO URTARRILAREN 30EAN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA. | ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 30 DE ENERO DE 2020. |
|---|---|
| ============================== | ============================== |
| BERTARATUAK | ASISTENTES |
| LEHENDAKARIA | PRESIDENTA |

Amaia Aguirre Muñoa and.

| ALKATEORDEAK | VICEALCALDESAS Y VICEALCALDE |
|---|---|

Keltse Eiguren Alberdi (EAJ-PNV)
Carmen Diaz Perez (PSE-EE)
Ignacio Uriarte Gorostiaga (EAJ-PNV)
Irantzu Uriarte Gómez (EAJ-PNV)

| ZINEGOTZIAK | C O N C E J A L E S |
|---|---|

Alvaro González Pérez (EAJ/PNV)
Joseba Arregi Martínez (EAJ/PNV).
Iñigo Urkitza Yañez (EAJ/PNV).
Carlos Sergio Achotegui (EAJ/PNV)
Janire Ocio Celada (EAJ/PNV)
Ainhoa Galduroz Alvarez (EAJ/PNV)
Arantzazu Rica Alvarez (EAJ/PNV)
Eduardo Andrade Aurrecoechea (PP).
Francisco J. Elorza Hormaeche (PP).
Gonzalo Zorrilla-Lequerica Pañeda (PP)
Alicia González Del Valle Francos (PP)
Natalia Aranduy Zuazagoitia (PP)
Gonzalo Ayo Jimenez (PSE-EE)
Asunción Olaeta Perez De Mendiola (PSE-EE)
Ignacio Robles Fernández (E. PODEMOS)
Paula Amieva Clemente (E. PODEMOS)

| IDAZKARI NAGUSIA | SECRETARIO GENERAL |
|---|---|

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita jn.

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan eta Alkate-Lehendakaria Amaia Aguirre Muñoa andrea dela, egun horretako goizeko bederatzietan, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian, ohiko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira eta baita kontu-hartzaile nagusia ere, Nuria Hernández Soto andrea.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia de la Alcaldesa-Presidenta, Amaia Aguirre Muñoa, se reunió a las nueve horas de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen, más la Interventora general, Nuria Hernández Soto.

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio eta jarraian Deialdiko Aztergaien Zerrenda barruan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaitza honakoa izan da:

La Alcaldesa, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

## EBAZPEN ATALA

## PARTE RESOLUTIVA

### 1.- GETXOKO UDALBALTZAK 2019KO AZAROAREN 29AN ETA ABENDUAREN 23AN, HURRENEZ HURREN, EGINDAKO AURREKO EZOHIKO ETA OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTAK ONESTEA.

2019ko azaroaren 29an eta abenduaren 23an Getxoko Udalbatzak egindako ezohiko eta ohiko bilkuraren aktak aho batez onestea.

### 1- APROBACIÓN DE LAS ACTAS DE LA ANTERIOR SESIÓN EXTRAORDINARIA Y ORDINARIA, CELEBRADAS EL DÍA 29 DE NOVIEMBRE Y 23 DE DICIEMBRE DE 2019, RESPECTIVAMENTE.

Se aprobaron por unanimidad las actas de la anterior sesión extraordinaria y ordinaria celebradas por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo los días 29 de noviembre y 23 de diciembre de 2019.

## ANTOLAKUNTZA ETA KONTUAK

## ORGANIZACIÓN Y CUENTAS

### 2.- NAZIOARTEKO BABESA ESKATZEN ETA JASOTZEN DUTEN PERTSONAK HARTZEKO ETA INTEGRATZEKO PROZEDURAK HOBETZEKO JARDUERAK FINANTZATZEKO KREDITUAREN GAIKUNTZA ONESTEA

### 2.- APROBACIÓN DE HABILITACIÓN DE CRÉDITO PARA LA FINANCIACIÓN DE LAS ACTIVIDADES DE MEJORA DE LOS PROCEDIMIENTOS PARA LA ACOGIDA E INTEGRACIÓN DE LAS PERSONAS SOLICITANTES Y

**(AUZOLANA HITZARMENA).**

Proposamena irakurri ondoren, Ignacio Uriartek hartu du hitza, proposamena aurkezteko.

Paula Amievak adierazi duenez, proposamenarekin ados daude, eta zaurgarritasun-egoeran dauden familia gehiagori arreta emateko neurri gehiago eskatu dituzte, bai eta Getxok eskualdeko gizarte-zerbitzuetan duen eginkizuna bere gain har dezala eskatu ere.

Carmen Díazek azaldu du Auzolana programa Euskadik emandako erantzuna dela eta erakundearteko lankidetza duela xede. Gainera, estatuko administrazioa nahiz tokiko administrazioa sartzen ditu tartean. Autonomia-erkidegoan, sei udalek hartzen dute parte proiektuan, baina Getxoko Udala da programaren bi faseak onartu dituen bakarra.

Keltse Eigurenek adierazi du babesa emango diotela Eusko Jaurlaritzatik jasotako diru-laguntza Auzonala programari bideratzeko proposamenari, asilo-programetan dauden familiei zuzenduta baitago. Erakundearteko lankidetza azpimarratuz amaitu du hitzartzea.

Proposamena bozkatu da eta Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta, aho batez erabaki da:

Onestea, kredituaren gaikuntza emateko espedientea, zk. 2020/01F, zenbatekoa 84.310,44 euro duela, aurrekontu partida hauei lotua dagoena:

**BENEFICIARIAS DE PROTECCIÓN INTERNACIONAL (CONVENIO AUZOLANA).**

Tras darse lectura a la propuesta interviene Ignacio Uriarte que presenta la misma.

Paula Amieva manifiesta que están de acuerdo con la propuesta y piden más medidas para atender a más familias en situación de vulnerabilidad y que Getxo asuma su papel en la prestación de servicios sociales en la comarca.

Carmen Díaz explica que el programa Auzolana es una respuesta desde Euskadi que busca la colaboración interinstitucional e involucra tanto a la administración el estado como a la administración local. Hay seis ayuntamientos en la Comunidad Autónoma que participan en el proyecto pero solamente asume el programa en sus dos fases el Ayuntamiento de Getxo.

Keltse Eiguen indica que van a apoyar la propuesta que plantea destinar la subvención recibida del Gobierno Vasco en el programa Auzolana, que está dirigido a familias que se encuentran en programas de asilo. Finaliza recalcando la colaboración interinstitucional.

Sometida la propuesta a votación, a propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas por unanimidad se acuerda:

Aprobar el expediente número 2020/01F de habilitación de crédito, por importe de 84.310,44 euros, que afecta a las siguientes partidas presupuestarias:

## Gastuak / Gastos:

| Partida | **Izendapena** Denominación | **Zenbatekoa** Importe en € |
|---|---|---|
| 020/2312/2270700 | Ikerketak eta lan teknikoak (Kulturartekotasuna eta inmigrazioa)<br>Estudios y trabajos técnicos (Interculturalidad e inmigración) | 19.310,44 |
| 020/2312/4800000 | Familiei (Kulturartekotasuna eta inmigrazioa)<br>A familias (Interculturalidad e inmigración) | 55.000,00 |
| 020/2312/4817700 | Perualde Elkartea (Kulturartekotasuna eta inmigrazioa)<br>Asociación Perualde (Interculturalidad e inmigración) | 10.000,00 |
| Guztira<br>Total | | 84.310,44 |

## Finantzaketa / Financiación

| Partida | **Izendapena** Denominación | **Zenbatekoa** Importe en € |
|---|---|---|
| 4114000 | E.J. Auzolanen Hitzarmena<br>G.V. Convenio Auzolana | 84.310,44 |

**3.- KREDITUAREN GAIKUNTZA EMATEA ONESTEA: 1., 2., 4. ETA 6. KAPITULUAREN GASTU DESBERDINETARAKO.**

Proposamena irakurri ondoren, Ignacio Uriartek hartu du hitza, eta 2020ko aurrekontuak Udalkutxaren partida bat jasotzen duela adierazi du. Behin betiko likidazioa ezagutu aurretik zehaztu zen partida hura, eta, zuhurtziaz jokatzeko, aurreko urteko esleipena errepikatu zen. Ondoren, 2019ko ekitaldia likidatu zen, eta 1.744.064 euroko saldoa atera zen Getxoren alde. Bada, proposamenarekin bat eginez, aurrekontura sartuko da saldo hori, eta bertan ageri diren xedeetarako bideratuko da (xedeak azaldu ditu).

Paula Amievak planteatu diren askotariko kredituei buruz adierazi duenez, bakoitzak bere aldetik bozkatzeko aukera eduki nahiko lukete, ez baitaukate horien gaineko iritzi politiko berbera eta elkarrekin bozkatu

**3.- APROBACIÓN DE HABILITACIÓN DE CRÉDITO PARA DIVERSOS GASTOS DE CAPÍTULO 1, 2, 4 Y 6.**

Tras dar lectura a la propuesta interviene Ignacio Uriarte que indica que el presupuesto del año 2020 contempla una partida de Udalkutxa que se definió en un momento en que no se conocía la liquidación definitiva y por criterios de prudencia se repitió la consignación del año anterior. Posteriormente, se ha liquidado el ejercicio 2019 y ha arrojado un saldo favorable a Getxo, de 1.744.064 euros que se van a incorporar al presupuesto conforme a esta propuesta destinando a los fines que figuran en la misma, que pasa a explicar.

Paula Amieva indica que respecto a los distintos créditos que se plantean les gustaría poder votar por separado ya que no tienen la misma opinión política sobre los mismos y el obligar a votar conjuntamente cercena el debate

beharrak eztabaida politikoa mozten baitu. Xede batzuekin ados daude, baina beste batzuek zalantzak eragiten dizkiete. Besteak beste, zalantzak dauzkate Punta Begoña Fundazioari dagokion kredituarekin; izan ere, azarotik zegoen aurreikusita eraketa-eskritura sinatzea, baina oraindik ez da sinatu, eta, ondorioz, ez dakite nolako profil profesionala duen kontratatuko den pertsonak. Halaber, BBKri esleitutako partidarekin ere ez daude ziur. Algortan lokal bat birgaitzeko erabiliko litzateke partida hori, herritarrek aspalditik eskatzen baitute, baina oraindik ez da ezer egin, eta BBK-k ere ez du eperik bermatzen. Hala ere, arrapala mekanikoetan mantentze-lanak egiteko kreditu gehiago behar dela uste dute. Duela ia-ia hiru urte eroritako baranda konponduko delako pozik dago, baina ez dakite kredituarekin zabaldegi guztian edo baranden gainean bakarrik jardungo den. Aipatutako guztiagatik, abstenitu egingo dira.

político. Están de acuerdo con algunos fines pero otros les generan dudas, como el crédito referido a la Fundación Punta Begoña que desde el pasado mes de noviembre en que estaba prevista la firma de la escritura de constitución aún no se ha realizado y ahora se plantea dotar de crédito para contratar a una persona cuyo perfil profesional no se conoce. Tampoco le convence la partida asignada a la BBK para rehabilitar un local en Algorta, que es una petición vecinal desde hace años y que aún no se ha efectuado nada y tampoco la BBK garantiza plazos. Sin embargo creen que hace falta más crédito para el mantenimiento de las rampas mecánicas. Se alegra que por fin se arregle la barandilla del ayuntamiento que se cayó hace prácticamente tres años pero no saben si con el crédito se está planteando actuar sobre toda la explanada o sobre las barandillas. Por todo lo expuesto se abstendrán.

Carmen Díazen esanetan, dirua Udalkutxatik dator, eta diruaren xedeak beharrezko jarduketak dira, zeinak hainbat batzordetan azaldu diren. Bestalde, batzorde horietan aurreratu denez, kreditu horrekin finantzatuko dira zenbait jarduketa; adibidez, emantzipaziorako laguntzak.

Carmen Díaz manifiesta que el dinero proviene de Udalkutxa y sus destinos son actuaciones necesarias que han sido explicadas en diferentes comisiones donde se adelantó también que determinadas actuaciones se financiarán con este crédito como el caso de ayudas a la emancipación.

Eduardo Andradek adierazi du PP abstenitu egingo dela, bere ustez horiek ez direlako lehentasunezko xedeak, nahiz eta planteatu diren xede batzuekin ados egon. Zaborren kontratuetarako kredituak handitzearekin ez daude konforme, bere ustez kontratistari eskatu behar zaiolako kredituokin egin nahi dena. Pozik dago Algortako adinduek lokalak edukitzeko asmoz Urgull eraikinean jardutearekin, PPk bere hauteskunde-programan eskatzen zuen moduan.

Eduardo Andrade indica que el PP se va a abstener porque no son los destinos más prioritarios en su opinión pese a que estén conformes con algunos destinos que se plantean. No están conformes con incrementar los créditos relativos al contrato de basuras porque entiende que lo que se pretende realizar con esos créditos debe ser exigido al contratista. Se alegra que se actúe en el edificio de Urgull para que la gente mayor de Algorta pueda contar con unos locales, tal como lo pedía el PP en

Halaber, Portu Zaharrerako laguntza onesten dute, baina ez dute argi ikusten Punta Begoña Fundaziorako finantzaketa. Bestetik, arrapalak lehenbailehen estali behar direla uste dute. Ondo iruditzen zaie udaletxeko barandak konpontzea, baina, inbertsio guztien lehentasunekin ados ez daudenez, abstenitu egingo dira.

su programa electoral. Apoyan también la ayuda al Puerto Viejo pero no ven clara la financiación a Punta Begoña y respecto a las rampas creen que es prioritaria su cubrición. Les parece bien la reparación de las barandillas de la Casa Consistorial pero al no compartir la prioridad en todas las inversiones se abstendrán.

Keltse Eigurenek planteatu diren inbertsioei aurre egingo dien finantzaketaren iturria azpimarratu du (Udalkutxaren 2019ko likidaziotik dator), eta proposamenean jasotzen diren xedeak zehaztu ditu.

Keltse Eiguren recalca la fuente de financiación que va a hacer frente a las inversiones que se plantean y que viene de la liquidación del Udalkutxa de 2019 pasando a detallar los destinos que se recogen en la propuesta.

Proposamena bozkatu da, eta honako emaitza hau atera da: 14 aldeko boto (EAJ eta PSE-EE) eta 7 abstentzio (PP eta Elkarrekin Podemos).

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 14 votos a favor, PNV, PSE-EE; 7 abstenciones, PP, Elkarrekin Podemos.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoz erabaki da:

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas por mayoría se acuerda:

Onestea, kredituaren gaikuntza emateko espedientea, zk. 2020/01NF, zenbatekoa 1.744.064,00 euro duela, aurrekontu partida hauei lotua dagoena:

Aprobar el expediente número 2020/01NF de habilitación de crédito, por importe de 1.744.064,00 euros, que afecta a las siguientes partidas presupuestarias:

## Gastuak / Gastos:

| **Aurrekontuko aplikazioa /** Aplicación presupuestaria | | **Programa** | **Zenbatekoa** Importe |
|---|---|---|---|
| **Kod.** / Cód. | **Izena /** Denominación | | |
| 020/2314/4817800 | Zabalketa Elkartea<br>Asociación Zabalketa | Garapenerako Lankidetza<br>Cooperación al Desarrollo | 10.000,00 |
| 020/2317/4817600 | BBK Fundazioa<br>Fundación BBK | Zahartze aktiboa zantzaileak<br>Envejecimiento activo cuidadores | 200.000,00 |
| 050/1530/6230200 | Instalazioak<br>Instalaciones | Bide publikoak<br>Vías públicas | 120.000,00 |
| 050/1621/6240000 | Garraio-elementuak<br>Elementos de transporte | Hondakinen bilketa<br>Recogida de residuos | 20.000,00 |
| 050/1630/6230100 | Makineria<br>Maquinaria | Bideetako garbiketa<br>Limpieza viaria | 155.000,00 |
| 050/4590/2120200 | Igogailuak, arrapalak eta eskailera mekanikoak<br>Ascensores, rampas y escaleras | Beste azpiegitura batzuk<br>Otras infraestructuras | 70.000,00 |

| **Aurrekontuko aplikazioa / Aplicación presupuestaria** | | **Programa** | **Zenbatekoa** Importe |
|---|---|---|---|
| **Kod.** / Cód. | **Izena /** Denominación | | |
| | mecánicas | | |
| 050/9207/2270102 | Eraikinen garbiketa<br>Limpieza edificios | Eraikinen kudeaketa<br>Gestión de edificios | 140.000,00 |
| 050/9207/6220200 | Beste eraikin eta eraikuntza batzuk<br>Otros edificios y construcciones | Eraikinen kudeaketa<br>Gestión de edificios | 448.804,00 |
| 060/1520/4800000 | Familiei<br>A familias | Etxebizitza<br>Vivienda | 250.000,00 |
| 060/3360/4816700 | "Portuzarra" Algorta-ko Portu Zaharraren auzo-elkartea<br>Asociación de vecinos Puerto Viejo Algorta "Portuzarra" | Ondare historiko-artistikoaren babesa eta kudeaketa<br>Protección y gestión del patrimonio histórico-artístico | 70.000,00 |
| 060/3361/4350100 | Menpeko veste entitateak. Fundazioak<br>Otras entidades dependientes. Fundaciones | Punta Begoña ondare historiko artistikoaren babesa<br>Protección del patrimonio histórico artístico Punta Begoña | 50.000,00 |
| 090/2318/4310001 | Erakunde Autonomoak<br>Organismos Autónomos | Udal Egoitza Erakunde Autonomoa<br>Organismo Autónomo Residencia Municipal | 70.000,00 |
| 090/3260/4310001 | Erakunde Autonomoak<br>Organismos Autónomos | Musika Eskola Erakunde Autonomoa<br>Organismo Autónomo Escuela de Música | 8.000,00 |
| 090/3400/4310001 | Erakunde Autonomoak<br>Organismos Autónomos | Getxo Kirolak Erakunde Autonomoa<br>Organismo Autónomo Getxo Kirolak | 102.260,00 |
| 110/9201/1620500 | Pertsonalaren aseguroak<br>Seguros personal | Langileria<br>Personal | 30.000,00 |
| | | **Kreditu gehigarria, guztira**/Total crédito adicional | **1.744.064,00** |

## Finantzaketa / Financiación

| Partida | **Izendapena** Denominación | **Zenbatekoa** Importe en € |
|---|---|---|
| 4200100 | F.A. Udalkutxa<br>D.F. Udalkutxa | **1.744.064,00** |

**4.- HONDAKINAK BILTZEKO IBILGAILUAK ESKURATZEKO 2021EKO EKITALDIRAKO KONPROMISO-KREDITUA ONESTEA.**

Proposamena irakurri ondoren, Ignacio Uriartek hartu du hitza, eta proposamena azaldu du. Adierazi

**4.- APROBACIÓN DE CRÉDITO DE COMPROMISO PARA EL EJERCICIO 2021, PARA LA ADQUISICIÓN DE VEHÍCULOS RECOLECTORES PARA LA RECOGIDA DE RESIDUOS.**

Tras darse lectura a la propuesta interviene Ignacio Uriarte que explica la propuesta se justifica en que los

duenez, erosiko diren ibilgailuak ez dira 2021era arte iritsiko, eta kontratuaren amortizazio-taulan ez zegoen horiek ordeztea aurreikusita. Ibilgailu batzuek 18 urte baino gehiago dauzkate, eta ezaugarri berriak dauzkaten ibilgailu berriekin ordezkatu behar dira.

vehículos a adquirir no van a llegar hasta el año 2021 y su sustitución no estaba incluido en el cuadro de amortizaciones del contrato. Son vehículos, en algún caso, de más de 18 años por lo que es necesario sustituir por nuevos vehículos que incorporan nuevas prestaciones.

Ignacio Roblesi ondo iruditzen zaio zerbitzuak isurketa gutxiko ibilgailu modernoak edukitzea. Haien ustez, proposamen hau hondakinen taldean jorratu beharko zatekeen, baina legegintzaldi honetan ez dira elkartu, eta, beraz, oposizioa eztabaida hauetatik kanpo geratu da. Beraz, abstenitu egingo dira.

Ignacio Robles manifiesta que le parece correcto que el servicio disponga de vehículos modernos y de bajas emisiones. Creen que esta propuesta se debía de haber tratado en el grupo de residuos, que no se ha reunido en la presente legislatura lo que supone excluir a la oposición de estos debates, por lo que se abstendrán.

Carmen Díazek adierazi du proposamenarekin ados dagoela, zerbitzua hobetuko duten ibilgailu moderno eta jasangarriagoak erosiko direlako.

Carmen Díaz manifiesta su acuerdo con la propuesta ya que se adquieren vehículos más modernos y sostenibles que mejorarán el servicio.

Eduardo Andraderen hitzetan, aurkako botoa emango dute, ibilgailuak berritzea ondo iruditu arren. Ordezkatuko diren kamioiak udalarenak ez direla adierazi du, eta erosiko direnek ere ez dutela izan behar. Gogorarazi duenez, hondakin-bilketaren lizitazioaren gaia jorratu zuen kontratazio-mahaian udaleko talde politiko guztiak zeuden, eta han eztabaidatu zen gaia. Bestetik, esan duenaren arabera, adjudikaziodunak erosten duen material guztia berria izan behar dela jasotzen du pleguen 83. artikuluak, baina materiala berrerabiltzeko proiektu bat egon behar da. Kamioiei buruz ari da berariaz, eta kamioi guztiak amortizatuta daudela esan du, eta, beraz, enpresak ibilgailu berriak erosi behar dituela, ibilgailu zaharrak asko jota erreserbako ibilgailu gisa utzita. Gainera, enpresa ibilgailuak berritzeko amortizazio-plan batez arduratu behar da, eta betebehar hori

Eduardo Andrade manifiesta que votarán en contra pese a que les parece bien la renovación de la flota. Indica que los camiones a sustituir no son del ayuntamiento y los que se adquieren no deben serlo. Recuerda que la Mesa de Contratación que trató de la licitación del contrato de recogida de residuos era una mesa en la que estaban presentes todos los grupos políticos del ayuntamiento y allí se debatió el tema e indica que el art. 83 de los pliegos recoge que todo el material debe ser de nueva adquisición por parte del adjudicatario y que debe haber también un proyecto de reutilización y se refiere expresamente a los camiones y dice que todos los camiones existentes están amortizados y la empresa debe de adquirir unos nuevos vehículos dejando los vehículos viejos en todo caso como vehículos de reserva y la empresa se tiene que encargar de un plan de amortización para renovar la

adjudikaziodunarena da. Hortaz, haiei egokitu beharko litzaieke. Bestetik, salatu duenez, ohikoa izaten da zerbitzuaren enpresa adjudikaziodunak betebeharrak ez betetzea.

flota y esa obligación se recoge para la adjudicataria por lo que a ellos les debiera de corresponder y denuncia también que es habitual el incumplimiento de las obligaciones por parte de la empresa adjudicataria del servicio.

Joseba Arreguik erantzun duenez, Getxoko gaikako bilketa % 34koa da (Bizkaiko altuena), eta asko hazi da azken urteotan. Besteak beste, adjudikaziodunaren inbertsio berriengatik izan da hori posible, eta, gehikuntza horren ondorioz, bilketak izandako arrakasta dela-eta, udalak jarritako erreserbako ibilgailuak hasiera batean uste zena baino askoz ere gehiago erabili dira, eta, beraz, ordezkatu egin behar dira. Enpresak erosi ditu dagoeneko eskaintzan sartu behar zituen ibilgailuak, guztiak bat izan ezik (laster iritsiko da). Eta planteatzen dena erreserbako ibilgailuen ingurukoa da.

Joseba Arregui replica que la recogida selectiva en Getxo llega al 34%, la más alta de toda Bizkaia, y ha crecido de manera importante los últimos años y ello ha sido posible, entre otras cosas, por las nuevas inversiones de la adjudicataria y ese incremento ha generado que los vehículos de reserva puestos por el ayuntamiento han tenido un uso superior al inicialmente previsto por el éxito de la recogida y hace que sea necesario sustituirlos. La empresa ya ha adquirido los vehículos que tenía que incluir en su oferta, excepto uno, que llegará próximamente y lo que se plantea se refiere a los vehículos de reserva.

Proposamena bozkatu da, eta honako emaitza hau atera da: aldeko 14 boto (EAJ eta PSE-EE), aurkako 5 boto (PP) eta 2 abstentzio (Elkarrekin Podemos).

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 14 votos a favor, PNV, PSE-EE; 5 votos en contra, PP; 2 abstenciones, Elkarrekin Podemos.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoz erabaki da:

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas por mayoría se acuerda:

Ikusi da Azpiegitura eta Zerbitzuetara atxikitako unitate buruak egin duen eskaera, zeinaren bidez 2021eko ekitaldirako 540.000 euroko konpromiso-kreditua onetsi dadin eskatu duen, hartara, honako hauek eskuratzeko urte anitzeko gastua egin dadin:
- Hondakinak biltzeko ibilgailua, gas natural konprimatu bidezko txasisa duena eta albo batetik kargatzen dena, 15 m3-ko edukierarekin eta pisatzeko ahalmenarekin.

Vista la petición formulada por el Jefe de Unidad adscrito a Infraestructura y Servicios que solicita la aprobación de un crédito de compromiso para el ejercicio 2021, por importe de 540.000 euros, para llevar a cabo un gasto plurianual para la adquisición de:

- Vehículo recolector de carga lateral chasis a GNC y capacidad 15 m3, con pesaje embarcado.
- Vehículo recolector bicompartimentado chasis a GNC y en

- Hondakinak biltzeko ibilgailua, gas natural konprimatu bidezko txasisa duena eta bi konpartimentu dituena. Atzeko kargan 16 m3-ko edukiera du eta pisatzeko ahalmena.

carga trasera de 16 m3, con pesaje embarcado.

Ikusirik, beste alde batetik, nola Kontu-hartzailea Nagusiak txostena paratu izan duen, egiaztatzen duela, ekitaldi horietako bakoitzeko konpromiso-kredituen zenbateko metatua ez dela %25 adinakoa baino gehiagokoa, azkena likidatutako ekitaldiko eragiketa arrunten bidezko baliabideen alderako.

Visto el informe de la Interventora General acreditando que el importe acumulado de los créditos de compromiso de cada ejercicio, no rebasa el 25% de los recursos por operaciones corrientes del último ejercicio liquidado.

Edukirik, azkenaren buruan, gastua baliabide berekiez baliaturik erabat finantzatzeko dela, batetik, eta bestetik, 10/2003 Foru Arauak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, eta Aurrekontua Betearazteko Udal Arauak zer xedatzen duten 22. artikuluan eta 8. artikuluan, zeinek berean, osoko bilkurara helarazita proposamena egin da konpromiso-kredituak onesteko, hona:

Considerando que este gasto se financiará íntegramente con recursos propios, y teniendo en cuenta lo que disponen el artículo 22 de la Norma Foral 10/2003, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Bizkaia y el artículo 8 de la Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria, se propone al Pleno la aprobación de los siguientes créditos de compromiso:

| Ekitaldia<br>Ejercicio | Aurrekontuko partida<br>Partida presupuestaria | Zenbatekoa<br>Importe |
|---|---|---|
| 2021 | 050/1621/6240000 | 540.000,00 |
| **Total** | | **540.000,00** |

**LURRALDEA**

**TERRITORIO**

**5.- HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORREKO ALDAKETA ZEHATZA PRINTZIPIOZ ONESTEA, HIRIGINTZA ARAUETAKO ARTIKULU HAUEI ERAGITEN DIENA: 7.1.3, 11.6.2, 7.4.7, 6.3.29. 6.3.33, 7.4.1, 7.4.2, 7.4.4, 7.1.13 ETA 6.3.40.**

**5.- APROBACIÓN INICIAL DE LA MODIFICACIÓN PUNTUAL DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA QUE AFECTA A LOS ARTS. 7.1.3, 11.6.2, 7.4.7, 6.3.29. 6.3.33, 7.4.1, 7.4.2, 7.4.4, 7.1.13 Y 6.3.40 DE SUS NORMAS URBANÍSTICAS.**

Proposamena irakurri ondoren, Iñigo Urkitzak hartu du hitza, eta haren edukiaren berri eman du. Bada, horren arabera, eraikinak ordezteko kasuetan

Tras darse lectura a la propuesta interviene Iñigo Urkitza que da cuenta del contenido de la misma y que supone la supresión de la exigencia

xehetasun-azterketarik ez eskatzeko manuak estalki azpiak etxebizitza bihurtzeko erregulazioari, ekipamenduen sestra azpiko erabilerei, lokalak behe-solairuko etxebizitza bihurtzeko aukerari, kirol-patioak estaltzeari eta esekitokien erregulazioari ere eragiten die.

generalizada de un estudio de detalle en los casos de sustitución de edificios, afecta también a la regulación de los bajo cubiertas en vivienda, a los usos bajo rasante en equipamientos, a la posibilidad de convertir locales en viviendas en planta baja y a la cubrición de patios deportivos y a la regulación de los tendederos.

Ignacio Roblesek adierazi duenez, Elkarrekin Podemosek ez dio adabakirik jarri nahi HAPOari: berrikuspenean aurrera egin nahi du. Proposamen zehatzak ez du guztiz konbentzitzen, aldaketa batzuk babestuko lituzketen arren. Hala ere, aldaketak elkarrekin aurkeztu direnez, taldeak ez dauka jarrera argirik, eta, beraz, aurkako botoa eman beharrean daude.

Ignacio Robles indica que Elkarrekin Podemos no quiere realizar parches al PGOU sino que se avance en la revisión del mismo. La propuesta en concreto no le convence totalmente pese a que algunas modificaciones sí apoyarían pero al presentarse conjuntamente no favorece un posicionamiento claro de los grupos por lo que están obligados a votar en contra.

Gonzalo Ayoren esanetan, proposatu den aldaketak izapideak arintzen ditu, eta irizpide tekniko nahiz sozial gaurkotuagoekin egiten du bat. Ondoren, proposatutako neurriek ekarriko dituzten hobekuntzak azaldu ditu. Hortaz, proposamena babestuko dute.

Gonzalo Ayo indica que la modificación propuesta agiliza trámites y se adecúa a criterios técnicos y sociales más actuales pasando a explicar las mejoras que presentan las medidas propuestas por lo que apoyarán la propuesta.

Eduardo Andradek adierazi duenaren arabera, proposamena babestuko dute, guztiek dakiten bezala hirigintzaren arloa zulo beltza izan baita izapideen epeei dagokienez. Bada, PPk arazo hori konpontzen lagundu nahi du. Ondo baloratzen dute xehetasun-azterketa kentzea; batez ere, babes-mailaren bat duen higiezin bat ordeztea planteatzen denean informazio publikorako aldia eta jarduketa baloratuko duen txosten zehatz bat egotea eskatzen delako.

Eduardo Andrade manifiesta que van a apoyar la propuesta ya que como todos saben el área de Urbanismo ha sido un agujero negro en cuanto a los plazos de tramitación y el PP quiere colaborar en solucionar ese problema. Valoran positivamente la supresión del estudio de detalle y, sobre todo, porque además se exige cuando se plantee la sustitución de un inmueble que tenga algún grado de protección que haya un periodo de información pública y un informe concreto que valore la actuación.

Ignacio Uriartek, proposamena egin duen zinegotziaren azalpenak kontuan hartuta, proposamena babestuko dutela

Ignacio Uriarte indica que apoyarán la propuesta teniendo en cuenta las explicaciones dadas por el concejal

esan du; izan ere, herritarren bizitza errazteko xedea dauka.

Proposamena bozkatu da, eta honako emaitza hau atera da: aldeko 19 boto (EAJ, PP eta PSE-EE) eta aurkako 2 boto (Elkarrekin Podemos).

Lurraldeko Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengo osoz erabaki da:

LEHENENGOA.- Onestea, hasiera batean, Getxoko hiri antolamendurako plan orokorraren hirigintza arauetako 7.1.3, 11.6.2, 7.4.7, 6.3.29. 6.3.33, 7.4.1, 7.4.2, 7.4.4, 7.1.13 eta 6.3.40. artikuluak aldatzea, HIRITEK-HIRIGINTZA TEKNIKARIAK izeneko enpresaren txostenaren arabera. Espedientean ingurumen ebaluazio estrategikoaren azterketa dago jasota, ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuko prozedura hasteko.

Aldaketaren ondorioz, 7.1.3-“Ordezkatzeak” artikulua kendu da, eta gainerako artikuluak honela geratu dira idatzita:

**11.6.2. artikulua.—Udal Zaintzapean dauden elementuetarako aginduak**
Eraikin horiei dagokienez, baimentzeko modukoak dira Alde horren Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren Araudiko xedapenak betetzen dituzten jarduera guztiak, eraisketak eta ordezkatzeak barne.
Jarduera horiek eraikinak babes araubide baten eraginpean jartzeko kontuan hartu diren balio historikokulturalekiko, ingurumen mailako balioekiko edo udalerriaren berezko balio sinbolikoekiko daukaten egokitasunari buruzko txosten espezifikoa egin beharko da.
Babesa oinarritu duten elementuei eraginak sortuz gero, eraiste osoa edo

proponente y que tiene como finalidad facilitar la vida a la ciudadanía.

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 19 votos a favor, PNV, PP, PSE-EE; 2 votos en contra, Elkarrekin Podemos.

A propuesta de la Comisión Informativa de Territorio, por mayoría absoluta se acuerda:

PRIMERO.- Aprobar, con carácter inicial, la Modificación Puntual de los Arts. 7.1.3, 11.6.2, 7.4.7, 6.3.29. 6.3.33, 7.4.1, 7.4.2, 7.4.4, 7.1.13 y 6.3.40 de las Normas Urbanísticas del Plan General de Ordenación Urbana de Getxo, según redacción de la empresa HIRITEK-HIRIGINTZA TEKNIKARIAK, constando en el expediente el correspondiente Estudio de Evaluación Ambiental Estratégica para el inicio del procedimiento de evaluación ambiental estratégica simplificada.

Como resultado de la modificación, se suprime el Art. 7.1.3-“Sustituciones”, quedando el resto de los artículos redactados en estos términos:

**Artículo 11.6.2.-Prescripciones de los elementos incluidos sometidos a Custodia Municipal.**
Sobre estos edificios resultan autorizables cualquier tipo de actuaciones que cumplan con las disposiciones de la Normativa de PGOU para el Área en la que se sitúen, incluidas las de derribo y sustitución.
Dichas actuaciones serán objeto de informe específico acerca de su adecuación a los valores histórico-culturales, ambientales o simbólicos propios del municipio que han llevado a considerar los edificios merecedores de un régimen de protección. Para el otorgamiento de la licencia municipal que autorice actuaciones de derribo

partziala egiteko udal lizentzia eskuratzeko, gainera, aurretik informazio publikoko izapidetzea egin beharko da, gutxienez hogei egunekoa.

**7.4. 7. artikulua: Estalki azpiko solairuak**

1. Estalki azpiko solairuetan ez da zilegi pertsonen egoitzazko erabilerarik batere, salbu eta erabilera horiek eremu edo area bakoitzeko arau zehatzetan eta laburpenkoadroetan berariaz baimenduak daudenak. Horrelako kasuetan, atiko-solairuen azalera eraikia zenbatu beharko da aprobetxamanduaren zehaztapen ondoreetarako.

2. Plan Orokor hau onetsi den unean teilatu azpian zeuden espazioentzako etxebizitza erabilerarako bizigarritasuna baimendutako erabilera da, eta onartu egingo da Plan Orokor honetan arautUtako baldintzak betez gero. Hala, bermatu egin beharko da etxebizitzen irisgarritasun baldintzak mantendu egingo direla eta eraikineko etxebizitza kopurua gehitu egingo da. Esekilekuen araubidea hauxe izango da: ERAIKUNTZEN BEHEKO SOLAIRUETAN KOKATUTAKO LOKALAK ETXEBIZITZA BIHURTZEKO ORDENANTZA.

3. Edifizioetako estalkiek gehien izango duten malda edo makurdura %40 izango da, fatxadaren oinplanotik edo aginduzko hegalduraren oinplanotik azkenengo solairuarekin eratutako elkargunetik abiatuko den malda. Amaitutako hegalduraren kota gaineko gailurraren gehieneko garaiera ez da 2,50 m. baino gehiagokoa izango, garaiera handiagoa behar den

total o parcial si se afecta a los elementos que han motivado su protección, se requerirá, además, la celebración de un previo trámite de información pública por plazo mínimo de veinte días.

**Artículo 7.4.7. Pisos bajo cubierta**

1. En los pisos bajo cubierta no se permiten los usos que requieran la permanencia de personas, salvo en aquellos casos en que figuren expresamente autorizados en los cuadros resumen y en las normas específicas de las zonas o áreas. En estos casos, la superficie construida de los áticos contará a los efectos de determinar el aprovechamiento.

2. La habitabilidad para uso de vivienda de los espacios bajo cubierta existentes en el momento de la aprobación de este Plan General se considera un uso tolerado, admitiéndose, con cumplimiento de las condiciones reguladas en este Plan General y garantizando el mantenimiento de las condiciones de accesibilidad con las que cuenten las viviendas ya existentes, un aumento del número de unidades de vivienda en el edificio. La regulación de los tendederos será la prevista en la ORDENANZA SOBRE CONVERSION EN VIVIENDA DE LOCALES SITUADOS EN LAS PLANTAS BAJAS DE EDIFICACIONES EXISTENTES.

3. Las cubiertas de los edificios tendrán una pendiente máxima del 40% arrancando desde la intersección del plano de fachada o desde el plano del vuelo reglamentario con el último forjado. La altura máxima de la cumbrera terminada sobre la cota de alero no será superior a 2,50 mts., salvo en el caso de instalaciones que requieran una mayor altura.

instalazioetan izan ezik.

4. Estalkiaren isurki hirualdekoak orobateko malda dutenak izango dira; horregatik bada, debekaturik daude bitariko akaberak malda biko isurkiak elkartuta, batez ere, mantzarda erako konponbideak erabilita.

4. Los faldones de la cubierta deben ser de pendiente uniforme, prohibiéndose soluciones mixtas de faldones con dos pendientes, en especial aquellas soluciones de tipo amansardado.

**6.3.29. artikulua: Ekipamendu erabileraren eremua eta eraikitzeko baldintzak**

**Artículo 6.3.29. Alcance del Uso de Equipamiento y condiciones edificatorias**

1. Usarioen planoan zehaztuta daude Planak hartarako xedatutako lurzoruak, sistema orokor edo lokal legez jo diren arren. Ekipamenduen erabilerek halako izaera zabala daukate, non ezarritako erabileraren instalazioa gauzatzerakoan dauden hirigintzako baldintzengatik hura bera aldaraztea komenigarri izango balitz ere, ez baita Plan Orokorraren aldaketatzat joko, erabilera bera ekipamenduen edo hiri-zerbitzuen erabileren barruan edukitzen bada.
Bestalde, eraikin berean erabilera edo kategoria hauetako bat baino gehiago bildu ahal dira.

1. En el plano de usos se especifican los suelos que el Plan destina a tal fin, sin perjuicio de su consideración como Sistema General o Local. Los usos de Equipamiento tienen un carácter abierto de manera que, si las condiciones urbanísticas en el momento de materializar la instalación del uso establecido aconsejaran su alteración, no será considerado modificación del Plan General, si se mantiene el uso dentro de los de Equipamiento o de los de Servicios Urbanos, pudiendo incluso combinarse en el mismo edificio más de uno de estos usos o categorías.

2. Ekipamenduren batzuk eraikin berean elkarrekin biltzekotan, derrigorrezkoa izango da aparteko sarrera bana bereizia izatea ezarritako jardueretako bakoitzerako.
Plan Orokorra behin-betiko onartu baino lehenagoko eraikietarako, baina, ez da derrigorrezkoa izango azken hori eduki beharra, azken baldintza hori ezin dutela bete egiaztatuz gero.

2. En el supuesto de equipamientos combinados en un mismo edificio será obligatorio contar con acceso independiente para cada una de las actividades implantadas.
Esta obligatoriedad no será exigible para aquellos edificios existentes con anterioridad a la aprobación definitiva del Plan General en los que se acredite la imposibilidad de su cumplimiento.

2 bis. Ekipamendu publikoko eraikinetan, beheko solairuko sestrapean jarri ahal izango dira ekitaldien aretoak eta horien zerbitzura dauden bulegoak, Planak ezarritako mugen barruan eta 7.4.1 artikuluari jarraiki.

2 bis En los edificios de equipamiento público y privado se podrán disponer por debajo de la rasante de la planta baja, salones de actos y otras dependencias al servicio de los mismos, siempre dentro de las limitaciones establecidas por el Plan y conforme a lo dispuesto en el artículo 7.4.1.

3. Ekipamendua erabiltzeko lur-zatiei dagozkien eraikuntzako baldintzak honako hauek izango dira:

- Hiri-lurzoruan dauden eta ordenantza aldeen barruan dauden ekipamenduetarako, dagoen antolamendu aldean dauden gainerako eraikuntzentzako berak izango dira. Baldintza hauek eraikitzen diren eraikinei eta daudenei aplikatu behar zaizkie.

- Hiri-lurzoruan bai baina ordenantza aldeetan ez dauden ekipamenduentzat, ekipamendu horien eraikikortasun inguruko aldeen ordenantzek hartu dituzte barruan, eta modu honetan antolatu:

- Ereaga aldean dauden ekipamenduak Basagoiti aldeko ordenantzak araupetuko ditu.
- Santa Klara jauregia Neguri aldeko ordenantzen arabera arautuko da.
- Igeritegi zaharren gaineko betelaneko orubea, Portu Zaharrean, Usategi aldearekin araupetuko da.
- Fadurako kirol instalazioetan Jolaseta aldeko ordenantza aplikatuko da.

- Lurzoru urbanizaezineko ekipamenduetarako, azpiegitura horiei egotzitako eraikikortasuna jarduera garatzeko behar bezain bestekoa izango da.

**6.3.33. artikulua: Kategoriak**

1. a) Etxebizitza adosatua

b) Familia bakarreko etxebizitza (bakanki dagoena)

Eraikin osoan famili bakarra bizi da eta eraikina bakanki kokatua, adosatua edo beste eraikin batzuen artean izan daiteke. Eraikinaren lurzatiarekin batera unitate bakarra osatzen du erregistroan eta bidetik sarbide

3. Las condiciones de la edificación correspondiente a las parcelas de uso de equipamiento, serán las siguientes:

- Para equipamientos situados en suelo urbano e incluidos en áreas de ordenanza serán las mismas que se fijen para el resto de las edificaciones incluidas en el área de ordenación en la que se encuentre. Estas condiciones serán de aplicación tanto para los edificios de nueva construcción como para los ya existentes.

- Para equipamientos situados en suelo urbano pero no incluidos en áreas de ordenanza, la edificabilidad de dichos equipamientos se asimilarán a las ordenanzas de áreas próximas, ordenándose del siguiente modo:

- Los equipamientos situados en la zona de Ereaga se regularán con la ordenanza del área de Basagoiti.
- El palacio de Santa Clara se regulará con la ordenanza del área de Neguri.
- Solar sobre el relleno en el Puerto Viejo sobre las antiguas piscinas se regulará con el área de Usategi.
- Las instalaciones deportivas de Fadura se aplicará la ordenanza prevista para el área de Jolaseta.

- Para equipamientos situados en suelo no urbanizable, la edificabilidad asignada a estas infraestructuras será la necesaria para el desarrollo de la actividad de la que se trate.

**Artículo 6.3.33. Categorías**

1. a) Vivienda adosada

b) Vivienda unifamiliar (aislada)

Son las que albergan a una sola familia en el total de un edificio, que puede estar aislado, adosado o agrupado, indistintamente. Constituye, junto con su parcela, una sola unidad registral, con acceso exclusivo e independiente desde la vía, de uso más o menos

independientea du, sarbidea etxebizitzetan bizi direnentzako da baina publikoa da.

restringido, pero público.

2. Etxebizitza kolektiboa Beste batzuen ondoan bildua egon eta eraikuntzako atal erkideak behingoaz erabiltzen dituena da, kanpoaldekoak batez ere.

2. Vivienda Colectiva
Es aquella que, agrupada con otras, utiliza conjuntamente elementos de edificación comunes, especialmente desde el exterior.

3. Babes ofizialeko etxebizitza Babes Ofizialeko araubideari lotuta dagoen etxebizitza da, Hirigintza Arau hauen 6.3.4. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3. Vivienda de Protección Oficial
Es la vivienda que está sometida al régimen de Protección Oficial de acuerdo con lo establecido en el artículo 6.3.4. de estas Normas Urbanísticas.

4. Erkidego-egoitza
Erkidego egoitzaren erabilerak hartzen dituen jarduerak dira, egoitzan iraunkortasun batekin erkidego ostatua eskaintzen duten jarduerak, jantokiko zerbitzu erkidegorik gabe, etxebizitza unitaterik osatu gabe. Ez dira erabilera horietara bilduko etxebizitzak edo apartamentuak zerbitzu batzuk zentralizaturik izan arren.

4. Residencia comunitaria
El uso de residencia comunitaria corresponde a aquellas actividades que proporcionan alojamiento comunitario con un carácter de cierta permanencia en la residencia, con o sin servicio común de comedor, sin constituir unidades de vivienda. No podrán incluirse en este uso las viviendas o apartamentos aunque tengan ciertos servicios centralizados.

Erkidego egoitzetarako erabilera izango duten eraikinek zerbitzu erkideak izateko modua dute, esaterako, batzargelak, ur bero sendagarrietarako bainugelak, kaperak, jatetxeak, kafetegia, ikuztegia, garbikuntza etab.

Los edificios destinados a uso de residencia comunitaria podrán tener servicios comunes, como salas de reunión, salas de baños termales o medicinales, oratorios, restaurante propio, cafetería propia, lavandería, limpieza, etc.

Sotoetan baimenduta egongo da ekitaldi aretoak eta horiekin lotutako bestelako aretoak erabilera; horietan, zenbaitetan pertsonak egon ahal izango dira, betiere planean zehaztutako mugak errespetatuz eta 7.4.1. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez.

Se autoriza en planta sótano el uso de salones de actos y otras dependencias al servicio de los mismos, en las cuales pueda haber permanencia ocasional de personas, siempre dentro de las limitaciones establecidas por el Plan y conforme a lo dispuesto en el artículo 7.4.1.

5. Ostalaritza
Hemen batuta dauden jarduerak dira aldi baterako ostatua ematen dutenak.
Erabilera hau duten eraikinetan jarduera osagarriak baimenduko dira,

5. Hotelero
Comprende el uso hotelero las actividades que facilitan el servicio al público de alojamiento temporal.
En los edificios destinados a este uso se

erabilera nagusiaren erabilera menpeko gisa: txikizkako dendak, ileapaindegiak, batzar eta kongresu aretoak, igeritegiak, jatetxe irekiak (ikuskizunekin edo gabe), atezainaren etxebizitza, etab. Horiek baimentzeko, ezin dute eraikitako azalera osoaren %40 baino gehiago hartu, aipatutako azalera biotan haurtzaindegi_aparkalekurako azalera sartu gabe.
Sotoetan baimenduta egongo da ekitaldi aretoak eta horiekin lotutako bestelako aretoak erabilera; horietan, zenbaitetan pertsonak egon ahal izango dira, betiere planean zehaztutako mugak errespetatuz eta 7.4.1. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez.

admitirán actividades complementarias como usos servidores del principal.
Tiendas al por menor, peluquerías, salas de reuniones y congresos, piscinas, restaurantes abiertos al público con o sin espectáculos, vivienda del conserje, etc., se admiten siempre que estos usos no superen el 40% de la superficie total construida, sin que se incluya en ninguna de las dos superficies citadas la mínima obligatoria destinada a guardería-aparcamiento. Se autoriza en planta sótano el uso de salones de actos y otras dependencias al servicio de los mismos, en las cuales pueda haber permanencia ocasional de personas, siempre dentro de las limitaciones establecidas por el Plan y conforme a lo dispuesto en el artículo 7.4.1..

Erabilera bat ostalaritza dela esateko, egoki diren ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

Para calificar un uso como hotelero, se deberá justificar dicha condición aportando la documentación correspondiente.

Hotel egoitza erabileraren barruan hauek daude:
- Hotelak
- Ostatetxeak
- Apupilo-etxeak
- Ostatu-etxeak
- Hotel-apartamentuak
- Hotel-egoitzak
- Ostatetxe-egoitzak
-Apopilo-etxeak
- Egoitza-apartamentuak
- Motelak

Dentro del uso de residencia hotelera se comprenden:
- Hoteles
- Hostales
- Pensiones
- Fondas
- Hoteles-apartamentos
- Hoteles-residencias
- Hostales-residencias
- Casas de huéspedes
- Residencias-apartamentos
- Moteles

**7.4.1. artikulua: Sotoen baldintzak**

1. Fatxadetako batean, beren garaieraren hiru parterik bi sestra-lerroaren azpian lurpean dauzkaten solairuei, soto izena emango zaie. Lurpeko zatiaren neurketa eraikuntzaren
garaiera osoak neurtzeko ordenantzek agindutako eran egingo da.

**Artículo 7.4.1. Condiciones de los sótanos**

1. Serán considerados como sótanos las plantas que tengan enterrada bajo la rasante, en alguna de sus fachadas, las dos terceras partes de su altura. La medición de la parte enterrada se practicará en los mismos puntos que, con arreglo a las ordenanzas, deben medirse las alturas totales de la

construcción.

2. Ekipamendu publikoa jarri behar ez den eraikinetan, sotoan soilik baimenduko dira garaje-aparkalekua eta goiko solairuetako lokalekin eta/edo eraikineko edo etxeko zerbitzu komunen instalazioekin edo hirirako azpiegiturekin
lotutako biltegi trastelekua.

2. Para los edificios destinados a usos no equipamentales públicos, en sótano sólo se autoriza el uso de garaje-aparcamiento, almacén trastero vinculado a los locales de plantas superiores y/o a instalaciones de servicios comunes al inmueble o casa, o a infraestructuras para la ciudad.

2.bis. Ekipamendu publikoko eta pribatuko eraikinetan eta Egoitza komunitarioko eta hoteletako erabileretarako eraikinetan (6.3.33. artikulua, 4. eta 5. atalak), beheko solairuko sestra azpitik egon ahalko da, ekitaldi aretoetakoak eta horiekin lotutako bestelako aretoetakoak, betiere planean zehaztutako mugak eta baldintzak errespetatuz, eta sestra azpian ez dira bi solairu baino gehiago egongo. Gutxieneko altuera 7.4.6. artikuluan erabilera osagarrietarako ezarritakoa izango da.
Kasu horietan guztietan segurtasun, sute, irisgarritasun eta abarri buruzko araubideetan indarrean dauden mugak errespetatu beharko dira.

